

Sutxo

Maidar IANTZI GOIENETXE

Ateak itzaltzen ditu, haize ematen duelako. Bazkaria prestatzen du. Leku batean itzali eta bertze batean pizten da. Xurgagailua eta hozkailua konpon-tzen ditu. Gurekin egiten du lo, geure buruan, eta bere ametsak gurekin ko-nektatzen dira. Umea da, ez da handi-tzen. Sudurra du, baina begirik ez, eta ez du ikusten. Horregatik, esku gainean ibiltzen dugu. Maite dugu. Paseatzen ibiltzen da geure buruan, pentsamendu onak izaten laguntzen du. Amets pila bat ditu politak, baina batzuk itsusiak, eta ez da haserretzen itsusiekin. Ez da katuarekin izutzen, bere laguna du. Bel-tza da bere kolore gustukoena.

Sendatu egiten du. Marrazkiak pare-tan jartzen ditu. Haize emanda errepi-dean barna ibiltzen da. Batzuetan eros-keak egitera joaten da. Txakurrak ere gustatzen zaizkio. Anitz freskatzen du. “Putxo” egiten du kontent, baina pixka bat haserre. Esku ume-umeak ditu. Uki-tzen ahal duzu.

Oraingoan ikusezin bihurtu da. Haize ematen badiozu ikusezin bihurtzen da. Horregatik mugitzen da alde batetik bertzerara: orain kuxinean, orain leihoan, gero aitatziren buruan, gero mahaian... Ezkutaketan arituko gara.

Sutxo Unaxen burutik jaio zen. Nire eskuak transkribatzaile hutsak izan zi-ren. Une zail batean nengoen, sabela ix-

ten duten itxaronaldi horietako batean, eta Sutxok konpainia ona egin zidan. Txundituta, pentsatu nuen Sutxo izan daitekeela barneko bizipoz hori, motibo jakinik gabe irribarrea ateratzen diguna eta bihotza betetzen diguten gauzak egi-ten ditugunean biziagotzen dena.

Sutxo izan daiteke urte berriko bazka-ri zoragarri horretan justu mahaian jarri ginenean izar formadun oinarri baten gainean piztu ziguten kandela ttikia, be-re inguruan kantatu eta otordua bukatu genuenean zeremoniaz itzali genuena. Sutxo izan daiteke norberaren aldarea, bertako landare, harri, egurtxo, hazi, usain eta taupadak, musukatu eta oho-ratu nahi ditugunak. •

Hamaika ikusteko jaioak gara!

Xabier Mikel
ERREKONDO

Gaur, hilak 11, dagoeneko esan dezakegu urtarrilak aspaldi-ko aldaparik malkartsuena dakarrela eta, aurtengoan bereziki, prezioen aldapa gora.

2024an COVIDaren krisia amaitutzat eman ondoren, 2025ean “errealitate” gor-dinera itzultzeko garaia dela erabaki dute agintariek. Amaitu dira, beraz, murrizke-tak, eta albo guztietatik jasoko ditugu be-larrondokoak: BEZak, udal tasak eta pre-zioak, gasa eta elektrizitatearen faktura, etxebizitzaren alokairua zein erosketa.

BEZa, oinarrizko elikagaietan (ogia, es-nea, arrautzak, etab.), %0tik %4ra igo dute; oliba olioan eta pastan %5etik %10era. Elektrizitatean %10etik %21era.

Gasak ere, bere kontratu molde guztie-tan, gora egin du nabarmen: %10 eta %18,3 artean.

Udal tasa eta prezioek gora egin dute lurralde guztietan. Adibidez, hondaki-nengatik, Gasteizen %100 eta Donostian %26,5!!

Etxebizitzan, alokairuan, parke publi-ko zabal eta orokorra eskaini artean hartu litezkeen gainontzeko neurri gehienak partxeak baino ez dira izanen, eta ez dira hurbilduko irtenbide zabal eta duinera.

Panorama beltz honen aurrean eta herritarren haserreari aurrea hartu nahian-edo, abendutik “erre-ke-erre” ari zaizkigu hedabideak, zirimir betean be-

zala ureztatzen administrazioek hartu neurri magikoa; hots, 12 urte arteko he-rritar guztiek izanen dutela garraio pu-blikoa doan. Ongi etorria da, noski, bai-na nago notiziaren trataerari nabari zaiola horrekin urtarrilean hasten den aldapatzar gupidagabea lanbro artean estaltzeko nahia. Erabakia bere horretan onuragarria izanagatik ere, ez baitu inola ere konpentsatzen urtarrileko pre-zio berriek larrugorritan uzten dituzten familien egoera.

Ez gaitzala lanbroak itsutu, ze ez dago kontsolamendurako tarterik, gaurtik aurrera belarrondokoak ozenagoak izango dira.

Hamaika ikusteko jaioak gara!. •